

GAIXOTASUN ETA OSASUN ASEGURUAK

Kontsumitzaileek eta/edo erabiltzaileek **egiaztatu behar dute zer baldintzatan sinatu dituzten aseguru-etxeekin** gaixotasun- eta osasun-aseguruen polizak (aseguru-kontratuaren baldintza orokorrak eta bereziak kontsultatu beharko dituzte), Koronabirusak eragindako egoeretan estaldura medikoa duten jakiteko.

ERREKLAMAZIOA IZAPIDETZEA

Polizak arriskuak zenbateraino estaltzen dituen zehaztean erabiltzaileak eta aseguru-etxeak iritzi kontrajarriak badituzte, erabiltzaileak erreklamazioa jar dezake **Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan** edo aseguru-etxearen **Asegurudunaren Defendatzailearen** aurrean (haren helbidea aseguru-kontratuan bertan edo aseguru-etxearen webean kontsulta daiteke). Hilabeteko epean (aintzat hartuta alarma-egoeran epeak etenda daudela) erantzunik jasotzen ez badu, edo jasotako erantzunarekin ados ez badago, erreklamazioa jar dezake **Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorrean**.

Ainhoa Orrantia
Kontsumo Saileko Arduraduna
TOLOSALDEKO KIUB

